



Allez Les Bleus! Horixe da Frantziako Estatuan azken hamarkadan gehien entzundako deia darra. Olatu baten modura zabaldu zen uholde urdina, baita Frantziako eskuinak bere egin ere, Nicolas Sarkozyren UMPk nagusiki. Errepublikako banderak kolore gorria ere badauka. Uholde urdinak alta, gorria irentsi du, baita alderdi txikiak irentsi ere. V.

Errepublikako bozketa sistemak ez ditu laguntzen ez ezkerra ez txikia dena. Alabaina, bozketa sistema aldatzea baino gehiago beharko dute beste Frantzia bat aldarrikatzen dutenak.

MIKEL ASURMENDI

Argazkia: Gaizka Iroz

Olatu urdinak olatu gorria irentsi du eta EH Bai itsasoan agertu da

ABSTENTZIOA hogeita lau puntu igo da hauteskunde presidentzialetatik Legebiltzarrerako bozketetara Frantzian. Orduan, hiritarren %85ak bozkatu zuen eta oraingoan %61ak. Presidentzialetan nagusitzen dena aise nagusitu izaten da legegileetan. Sarkozyren UMPk bozen %40 lortu du eta Legebiltzarreko aulkien herena baino gehiago lortu dezake bigarren itzulian. PSk bozen %20 erdietsi du. Ezkerreko beste aukerak, PCFk, Berdeek nahiz gainerakoek aulkiak galdu dituzte. François Bayrouren UDF-MoDem alderdiak izugarritzko porrota jaso du, bozen %7,61 baino ez du lortu. NC (Zentro Berria) alderdi berriak, UMPren nahietara makurtu denak, salbatu ditu UDFko aulki batzuk. Alabaina, NCK aulkiak UMPko politikaren mesedetan erabiliko omen ditu. Eskuin muturreko FNk ez du lortu aulkirik, Marine LePen lehiatuko da bigarren itzulian, baina aukera ia batere gabe.

Royalen eta Hollanderen ezkerre

PSko idazkari François Hollanden eta alderdiko ikur berri Ségolène Royal emaztearen deia darra ozen entzun dugu bozen bihamunean: “Gure ezkerreko aberkideok, bigarren itzulian oraindik ere hainbat aulki salba genezake eta eskuineko uholdeari aitzi egin gure etorkizuna prestatzeko”. Ele hauek aire edo doinu frantses batekin irakurri eta mezua ezagunagoa egingen zaizu. Ezkerrak behea jo du, hondalea. Gorako bidea baino ez zaio geratzen gauroitok.

Zentro-ezkerrak bigarren itzulian behartu du Ipar Euskal Herrian

“Iparraldeko ezkerrak eskuina garaituko duen esperoan” idatzi genuen aurreko astean. Ezin uka premisa baikorregia dela gaurko egunean. Abstentzioak eta Estatu mailako eskuineko uholde urdinak ia irentsi du gorria, baita ezkerreko aulki bat lortzea ere

Iparraldean. PSko Sylviane Alaux eta Jean Espilondok nekez eskuratuko dute aulkia. Hala ere, Michele Alliot-Marie eta Jean Grenet bigarren itzulian lehiatzera behartu izana garaipena da nolabait. 4. barrutian –Biarno eta Euskal Herria biltzen dituen–, UDF-MoDemeko orain arteko diputatu Jean Lassallek eutsi diezaioke aulkia, UMP eta PSrekin lehiatuko da bigarren itzulian. Indarrak arras parekatuta daude. Zentro-ezkerraren harremanaren test esanguratsua izanen da.

EH Bai laugarrena Iparraldean

EH Baik 10.000 boz baino gehiago eskuratu du. Laugarren indarra da, eskuin, ezker eta zentroko alderdi nagusien atzean. Legegileak ez ditu berezko hauteskundeak, bai test egokia ordea. Errepublikako itsaso handian hedatutako olatu txiki honen txanpa baliatu behar du herri bozketako hainbat aulki, modu naturalez, erdiesteko. ■